

MAILOPE

275

2019ko abendua

TOKIKOM

DO - RE - MI,
MUSIKARI HORI...
FA - SOL - LA,
MEREZI DUZULA!

ORGANIKOA KONPOSTATUZ, LARRAUNGO UDALERRIAN EKONOMIA ZIRKULARREAN SAKONDU NAHI DUGU

Mendialdea Mankomunitateak herritarrak materia organikoa konpostatzera animatzeko kanpaina martxan jarri zuen 2018an: "EREIN OHITURA, EGIN KONPOSTA". Horren bidez, Nafarroako Hondakin Legeak materia organikoaren %50a bereizita kudeatzeko helburua bete nahi da. Sortzen den materia organikoaren %100 konposta bidez kudeatzea da helburua, eta gure hondakinek Culebrete (Tutera) plantaraino egin beharreko 120 km-ak saihestea.

Larraungo Udalak erronka horri heldu zion, eta udalerriko biztanleek sortzen dituzten hondakinak konpostatzea jarri du helburu. Erronka horri aurre egiteko, elkarlanean jarri nahi ditugu Larraungo Udala, Mendialdea Mankomunitatea eta udalerria osatzen duten 15 Kontzejuak hemendik eta 2021 arte. Aurtengo urtea bukatzerako, Baraibar, Iribas, Oderitz, Astitz, Errazkin, Uitz, Azpirotz eta Lezaetan oinarritzko lanketak bukatuak dira. Eta hurrengo pausoa, gainerako Kontzejuetara eramatea da, elkarlanean, herritarrak kontzientziatuz eta baliabideak jarritz. Gaur egun Larraungo Udalerritik 350 Tona ateratzen dira urtean zabortegira eta hauetatik 200 Tona konpostatzea aurreikusten da, horrek ekonomikoki onurak izango lituzke.

Guk argi dugu ekonomia zirkularrean sakondu nahi dugula. Orain arte, ordea, ekonomia linealaren sisteman aritu gara: gauzak ekoitzi, erabili eta bota egin ditugu (eta hondakin bilakatu). Kontsumoan oinarritzen den gizarte honetan, hondakinak etengabe eta neurri gabe sortu ditugu, eta ondoren, deuseztatzea bidali ditugu. Ekoizpen-sistema lineal hori ez da jasangarria, naturan dauden baliabide material eta energetikoak agortzen dituelako eta diru publikoa neurri gabe xahutzea dakarrelako. Ekonomia zirkularrean, berriz, garrantzia ematen zaie baliabideei, eta bizi berri bat ematen zaie produktuei. Eta lan ildo horretan kokatzen dugu Mendialdea

Mankomunitatearen batera antolatu ditugun tailerrak, erosketa ohiturak aldatzeko eta hondakinak murriztu eta berrerabiltzeko. Gizarte gisa, funtzionatzeko eredu jasangarriagoak bilatu behar ditugu, eta hori denon artean egitea da gure intentzioa, elkarrekin eraikiz Larraun aurrerratu eta jasangarria.

Josu Oreja (Larraungo Udaleko Tokiko Garapeneko zinegotzia).

OHARRA

Mailopeko azken bi aleak behar baino beranduago iritsi ziren etxeetara. Udazkena berandu sartu omen da aurtentzen eta gu ere hala ibili gara, ez ordea apropos. Eta horregatik barkamena eskatzea baino ez zaigu gelditzen. Askok dira urte amaierarekin batera pilotzen diren lanak, eskualdean antolatzen diren ekitaldiak adina. Baina honako ale hau zertxobait aurrerratu dugu eta ea ba beti bezala fin-fin hasten dugun urtea.

Labriteko lantaldea eta Mailopeko erredakzio taldea.

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

ANTONIO CARRARO



BIDEGO X JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com



05 BERTSO BERRIAK

06 ELKARRIZKETA: M^a Angeles Urrizalki.

11 MOKOKA

12 BATZARRE

14 LUZE ETA ZABAL

20 ERREPORTAJEA: Trinketearen mendeurrena.

22 KULTURA

25 KIROLA

28 ERREPORTAJETXOA

30 KUXKUXEAN: Abenduko zorion agurrak.

31 KONTU TXIKIAK

• **MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzi eta Uztegi.

• **ARGITARATZEN DU:**

Mailope Kultur Elkarteak.
L.G.: NA 719/93
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.
issuu.com/mailopealdizkaria

• **ERREDAKZIOA:**

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

• **ARGAZKIAK:**

Labrit, J.A. Garaikoetxea, Ricardo Bosch, M^a Angeles Urrizalki, Koldo Amatria, Mikel Azpiroz, Ondare Kultur Taldea, Mitxausenea Kultur Etxea, Agustin Saralegi, Iosune Igoa eta Printza.

• **PUBLIZITATEA:**

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

• **MAKETAZIOA:** Araitz Amatria.

• **TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, Kontzejuak eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra

LABRIT
MULTIMEDIA

Bizitzan,


kirolean
bezala,

GIZAR TERATZEA



BURUZ BEHERA

Abenduko zubian Sastrakako lagunek bidaia berezia egin ohi dute. Azken urte hauetan Marruekoeko basamortuetan ibili dira 4x4 ibilgailuez gozatzen. Iaz ordea lau minutuz gelditu zen lagun baten kotxea modu bertikalean jarrita, gidaria barruan zela. Zorionez ez zen ezbeharririk izan. Aurten Portugalera joanen dira "Off Road" egitera.



ABESBATZAREN KONTZERTUA

Kontzertu dotoreenetakoa izan ohi da Jesus Jaimerena Abesbatzak Eguberrietan eskaini ohi duena. Datorren abenduaren 22an, eguerdiko 11:45ean hasita, Lekunberriko elizan emanaldi berezia eskainiko du.



URTE BERRI ON!

Urte amaierarekin batera oraingoan ere urte osoan zehar zuen sukalde eta txokoetan Mailope Aldizkaria presente izateko egutegi ederra osatu dugu. 2020koa bertako etxeko ateekin sortu dugu. Ate bakoitza zein etxetakoa den identifikatzeko gai al zara? Egunberri On denoi!

bertso berriak Mailoperi jarriak: Haydee Calderon (Iribas)

**Erreferenduma ta
herriaren hitza**
egungo egoeran dago
adierazgaitza
honek behar du azkar
euki aldakuntza
ta hortarako_egokia
da antolakuntza

Gizarteak zer nahi dun
oso argi **daki**
konstituzioa dugu
betiko **aitzaki**
badira haiek bezain
biztanle **gizaki**
zilegi izateko
herrik **erabaki**


Doinua: Dama gazte xarmant bat.

Hurrengoarentzako puntua:

Udaletxeak dio
hona ez etorri

Oinak:

11.000, Xalala, zentsura, euskara.



“Musikak asko lagundu dit”

Betidanik izan du gustuko plaza, jaio ere bertan egin baitzen, Beteluko Labaienean. Plaza horretan hainbatetan eta hainbate-tan aritu da jotzen, ondoan dagoen elizan abesten eta Labaienean bertan hama-hiru urte baino gehiagoz musika irakasten. M^a Angeles Urrizalki beteluarra omenduko dute aurtengo Araitz-Beteluko Kultur Astean.

Belarri finekoa izan da beti M^a Angeles Urrizalki. Musikarekiko afizioa jaso zuen aitaren eskutik eta hori bera transmititu zien urte luzez bere ikasle izan zirenei ere. Gaur egun, 70 urte ditu eta oraindik ere herriko abesbatzan aritzen da, Diario Vasco egunkarirako bertako albisteak idatzi eta argazkiak ateratzen ditu eta amona ere bada, eta ez edonolokoa gainera. Ez da geldi egotea gustuko duen pertsona. Akordeoia ikasten hasi da Aralar Musika Eskolan eta ez du bazterten dakiena fintzeko pianoa ere ikasten hastea. Behatzek ez diotela jarraitzen dio, baina hori ez da traba. Dagoeneko prest ditu Araitz-Beteluko Kultur Astean abestuko dituzten kantuen letrak. Baina

“Mugimendu handia sortu zen musikaren inguruan”

oraingoan, abesteagatik ez ezik bertako kulturaren alde egindako guztiarengatik bera txalotuko dute.

Lau anai-arreba zarete zuek...

Bai. Ni hirugarrena. Lourdes, Ramon, ni eta Itziar.

Aita zenuten Labaieneakoa...

Bai, aita, Francisco Urrizalki hemen jaioa zen eta ama Aresoko, Modesta Azpiroz. Ama oso gazte hil zen, nik hamabost urte nituela.

Aita txistularia zenuten, ezta?

Bai eta berarekin hasi ginen musika irakurtzen eta txistua jotzen. Baina nik denbora batez utzi egin nion jotzeari. Niri ere musika beti gustatu izan zait eta pixka bat jarraitzen nuen nire kontua partiturak lortu eta pianoa jotzen.

Baina zu ume zinela txistulari talderik bazen herrian?

Ez. Nire aita ondoren hasi zen Don Jesus Jaimerenaekin batera haurrei txistua irakasten. Elizara joaten ziren entseatzera.

Eta gero nola hasi zinen zu solfoea irakasten?

Lekunberriko musika eskolakoek egin zidaten proposamena. Hasieran ez nuen argi ikusten, baina hasi nintzen, eta ikasleak nire etxera etortzen ziren. Hementxe, gela honetan ematen genituen klaseak.

Nortzuk izan ziren zure lehen ikasle haiek?

Belen Buldain, Juan Carlos Buldain, Juan Ignacio Buldain, Amaia Ibañez,



M^a Angelesek beti izan du musikarako zaletasuna. Arg: Labrit

Idoia Otamendi, Garbiñe... Kuadrila bat. Aste osoan egunero-egunero elkartzen ginen eta larunbatean, autobus txiki batean Lekunberrira joaten ginen. Ni neu ere ikasle bezala joaten nintzen beraiekin. Don Jesusekin larunbatetan ikasitakoa astean zehar entseatzeko genuen.

Bakar-bakarrrik hasi zinen orduan...

Bai, ez zegoen beste mugimendurik hemen. Orduan etxe zaharra genuen, konpondu gabea. Gela hau okindegia izandakoa zen. Eta egokitze lanak egin bitartean alboko jangela batean hasi nintzen klaseak ematen. Halako mahai bat bazen eta hantxe!

Musika tresnen klaseak berandua-go etorri ziren?

Bai. Ondoren Aralar Musika Eskolako irakasleak hona etortzen hasi ziren. Ana Mari Erroz Uitzitik etortzen zen pianoa irakastera. Eta egun hartan nik ez nuen klaserik ematen. Urte haietan hemen arratsaldeko hiruetan hasi eta gaueko zortziak arte musikarekin isildu gabe. Nire senarra nekatu ere egiten zen. Lanetik etorri eta beti "DOOO...", baina ni gustura.



Ikasleak solfeo ikasi ahala eta zure aitak txistua erakusten zienez, kalera irteten hasi zineten...

Txistulariena nire aitak mugitu zuen gehiago. Festetan irteten ginen, ihauterietan karri dantza jotzera, Olentzeroarekin... Mugimendu handia sortu zen musikaren inguruan. Hona ibarreko ume guztiak etortzen ziren. Gero nire senarrak egindako egurrezko mahai batzuk jarri genituen hemen ikasleentzat eta pianoa hortxe zegoen. Orduak eta orduak hemen...

Argazkian: Garbiñe Sasiain, Juan Carlos Buldain, Ana Otamendi, Belen Buldain, Juan Ignacio Buldain, Iñigo Estanga, Amaia Ibañez, Ana M^a Buldain, Mikel Huarte, Idoia Otamendi, Loli Olaetxea eta atabalari tolosarra.

"Poztekoa da baina uste dut urduri jarriko naizela"

M. Angeles Urrizalki

iragarkiak, berriak, eskelak...

Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala

948513056
699179437

Atabal
okindegia

Era askotako ogiak eta gozoak

Etxez etxe banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

BERTAKO HARAGIA

Txistorra, txorizoa, salteixak, sukaldaturako platerak. Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.

Antigua Kalea N^o7
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com



Lontxo Zubilaga, M^a Angeles eta Francisco Urrizalki.

“Gaztetxoak ez dira abesbatzan parte hartzera animatzen”

Pazientzia ere beharko zenuen...

Bai. Ahoan txiklea zutela etortzen ziren asko eta mahai azpian uzten zuten itsatsita... Garai hartan solfeo ez zen gaur egun bezala irakasten. Orduan diktaketen bitartez egiten genuen. Gainera dena erdaraz! Gogoan dut ikasle bati behin galdetu niola: - “¿Y aquí no has puesto nada más?”. Eta ikasleak erantzun: - “Bueno, en el tarte le he puesto un silencio”. [Kar, kar].

1997an utzi zenion musika eskolak emateari. Zergatik?

Irakasleei ikasketa berezituak eskatzen hasi ziren klaseak eman ahal izateko eta utzi egin nuen. Ikasleek omenaldi eta guzti egin zidaten herrian, polita izan zen. Baina pianorik gabe gelditu nintzen eta ikaslerik gabe, gaizki pasa nuen. Hamahiru

urte pasa nituen egunero umeekin musika ematen eta bat-batean... Nire pianoarekin hasi nintzen klaseak ematen eta hura izorratu zenean musika eskolak berria erosi zidan, baina utzi nuenean pianorik gabe utzi ninduten, eskerrak gero berriro bueltatu zidaten! [Kar, kar]

Ettxeko piano zahar hura nork jotzen zuen?

Nire osaba Ramon Urrizalkik eta baita nire anaia ere.

Beraz, haurtzarotik hasita musika ez da falta izan etxean...

Ez, ez. Eta ospakizunetan ere beti abesten amaitzen genuen. Orain ere askotan! Otordu bat egin eta gero kantatu gabe, oso tristea dela iruditzen zaigu.

Herriko abesbatza ere zuk indartu zenuen...

Nire ikasleak solfeo ikasten hasi zirenean, oso gazteak izan arren, ikasitakoa praktikan jartzera animatu eta elizan abesten hasi ziren. Orain zaila egiten da jendea elkartzea. Abesbatzako gehienek ume txikiak dituzte eta kosta egiten da. Juan Bautista apaizarekin asko ikasi genuen eta bultzada ederra eman zigun. Ni ere saiatzen naiz, baina zaila da. Gaztetxoak gaur egungo musika nahiago dute eta ez dira animatzen.

Auroroak abesteko ere elkartzen zarete...

Bai. Gerra Zibilaren garaian desager-

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak **Tostadak mermeladarekin** eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
 Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
 948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte
 ARBEONDO
HARATEGIA
 Aralar kalea 9
 Lekunberri
 948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
 HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
 948 50 43 31
 Lekunberri

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
 Betelu 31890
 948 513 083
 696 732 290
 aitziberri@hotmail.com

tu egin zen Auroroen taldea herrian, baina gero nire aitak berreskuratu zuen eta 1980. urtean ateratzen hasi ginen eta ordutik jarraitzen dugu. Urteko ospakizun handietan abesten dugu eta urtean behin Nafarroan egiten den Auroroen topaketara ere joaten gara. Ni orain hasi naiz berriro abesten. Abesteko indarrak gabe egon naiz.

Zure alaba Garbiñek ere urrizalki-tarren musikarako gaitasuna zuen ezta?

Bai. Umetan ibili zen txistua jotzen ia bukaerara arte. Ikaragarri ongi jotzen zuen.

Zu baino txistulari hobea zen?

Bai, bai, zalantzarik gabe. Hura ez zen gelditzen gainera, hau edo bestea antolatu behar zela, abestu edo txistua jo behar bazen, han zen. Gogorra izan zen, ez nuke sekula pentsatu izan...

Geroztik musika ezberdin bizi duzu?

Bai. Ez dakit zenbait abesti berriro abesteko gai izanen ote naizen. Baina era berean niri musikak asko lagundu dit eta ez dut baztertzeko txistua ere ez dudarik berriz joko.

Diario Vasco egunkarian ere urte asko daramatzazu korrespontsal...

Bai, 1998tik. Egun batean etxera etorri ziren, hemengo berriak bidaliko zizkien norbaiten bila zebiltzala eta

animatu egin nintzen. Festetako egitarauak, jaunartzeak, ihauterietako argazkiak eta denetarik bidaltzen diet. Baina hurrengo egunean jartzen ez badute, atzetik ibili behar izaten naiz deika.

Nola jaso zenuen Araitz-Beteluko Kultur Asteko omenaldiaren berri?

Poztekoa da, baina uste dut urduri jarriko naizela jendearen aurrean. Baina eskertzekoa da. Gainera egun horretan abestera irtengo gara. Ea horrela jendea abestera animatzen den eta tarteka entseatzera hurbiltzen diren. Ez dira elizako abestiak izanen, baizik eta abesti herrikoiak. Polita izanen litzateke beste hainbat herritan egiten duten moduan tarteka kalera irtetea abestera.



Iaz, Andosilla, Nafarroako Auroroen Topaketa.

Antigüedades Gastón

ZURGINTZA OROKORRA, 948 302 916 - 615 850 174
 ALTZARI RUSTIKOETAN ETA info@antiguedadesgaston.com
 ZAHARBERRITZETAN BEREZITUA. www.antiguedadesgaston.com

- ✓ Lan mota guztiak egiten ditugu zurarekin, batez ere haritz zaharrekinekin.
- ✓ Ekarriguzu zure altzari edo dekorazio ideia eta zure neurria egindako aurrekontua prestatuko dizugu, konpromisorik gabe.
- ✓ Zaharberitze ikastaroak ere eskaintzen ditugu.

Gipuzkoa errepidea, 11. km.
 Gilledi industrialdea, 1 (Gasolindegiaaren alboan)
 31892 Sarasa.



urrutia
 enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
 okindegia

ARRIBE 

ADIII TLF BERRIA:
 948 51 30 32

 panaderia okindegia

GALBURU eco

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
 948 50 40 42

“Eskerrik asko M^a Angeles”

Yolanda Eskamendik eta Rakel Estangak ongi ezagutzen dute M^a Angeles. Biak betelurrak izateaz gainera, abesbatzako kideak baitira.



Zeintzuk dira M^a Angelesekin dituzuen lehen oroitzapenak?

Rakel: M^a Angeles beti musikarekin. Bera izan zen gure musikako lehenengo irakaslea.

Yolanda: Baina orain baino beranduago hasten ginen orduan musika ikasten. Eta ondoren abesbatzan hasi ginen. M^a Angelesek igandero organoa jotzen zuen, batzuetan behean eta beste batzuetan goian.

Rakel: Hasieran elizako kantak abesten genituen, baina gaur egun bestelako abestiak ere abesten ditugu.

Yolanda: Lehen, urtean behin afari bat egiten genuen eta gustura ibiltzen ginen afariaren ondoren ahotsetara abesten. Orduan gainera jende asko ginen. Hau dena bete egiten zen. Ni bere etxean aritzen nintzen akordeoia ikasten eta ez zitzaion inporta. Edozein partitura behar baren berehala lortzen zuen. Urte Berri egunean ere, parranda egin eta gero abestera joaten ginenean, ez zigun inoiz errietary egiten: “Atzo ongi eh!”. [Kar, kar].

Eta pertsona bezala nola deskribatuko zenukete?

Rakel: Oso pertsona ona. Musika ikaragarri gustatzen zaio, musikarekin gozatzen du eta hori transmititu nahi izan du beti. Guk hala bizi izan genuen. Batzuetan zorrotza zen, baina hala izan behar zuelako. Baina guk berari esker ikasi dugu musika eta gaur egun berari esker gozatzen dugu musikarekin. Olentzeroa ere berari esker daukagu. Bera ibili zen hasierako urte haietan antolatzen.

Yolanda: Eta eskuzabala. Bere etxea moldatu zuen klaseak emateko. Den-

da ere bazuen eta askotan denda itxi egiten zuen hileta elizkizunetan abestu edo organoa jotzeko.

Bere alaba Garbiñek alde egin zuenean, herritar askoren sentimendua izan zen kultur eragile garrantzitsu batek alde egin zuela...

Rakel: Bai eta guk pentsatzen genuen, M^a Angelesek egin duen guztia Garbiñek egiten jarraituko zuela. Eta orain nolabait kate hori moztu egin da. Garbiñe ez dago eta horregatik guk askotan esaten dugu, gure ahalegina egin behar dugula.

Yolanda: Garbiñe joan zen eta M^a Angelesek entseguetara etortzeari utzi zionean izugarritzko beherakada nabaritu genuen abesbatzan. Gu ere animorik gabe ginen eta ez genuela entseatzeko ikusi zuenean berriro etortzen hasi zen.

Rakel: Eta noski, bera hor ikusita, ezin genion huts egin!

Yolanda: Azkenean M^a Angelesek denongatik tira egiten du! Ea jende berria abesbatzako entseguetara etortzera animatzen den. Behintzat proba egin dezatela!

Eta M^a Angelesi zer esanen zenukete?

Rakel: Eskerrik asko, gauza askorengatik. Baina batez ere herrian egin duen lan guztiarengatik eta, nire kasu pertsonalean nirengatik, musika ekarri didalako eta niretzako oso garrantzitsua delako bizitzan. Beraz, eskerrik asko.

Yolanda: Eta jarrai dezala urte askoan!

Karramarroen antzera



●● Mikel Hernandez

Ilepa Pello!!! Gaurkoan Enrique Maya eta bere taldeak Iruñeko Udalera iritsi zirenetik aurrera eramaten ari diren strategiari buruz hitz egingo dut. Estrategia hau karramarroen ibiltzeko moduari erabat lotuta dago, atzeraka joatearekin, alegia. Vox alderdi ultraeskuindarraren igoerak izua sortu duela sumatzen da, baina ez gaitzezen engainatu, eskuinak ere izuaren eta erreprezioaren taktika aurrera eramango du eta aurrera eramango du bere ibilbidean. Hori da Navarra Sumak euskararekin zerikusia duen edozein egiten duena. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek hilaren 29an Baluartean hitzordua dute Iruñeko txikiak. Baina dirudenez, beraien presentziak Nafarroako eskuinaren izua sortu du eta Maya alkatearen eta bere taldearen lehenengo erabakia ekitaldi hau debekatzeko izan da. Noski, politika tartean sartzen. Mayak dio pailazo hauek eta ezker abertzaleak euren artean duten erlazioa ezin dela eztabaidatu. Eskuinaren betiko leloa, Pirritx, Porrotx eta Marimototsekiko mespretxuzko jarrera erakustez gain, txikiak pailazo hauek ikusteko dituzten gogoak zapalduz.

Kontua da EHBilduren Iruñeko taldeko kultura arloko zinegotziak, Maider Belokik, pailazoaren managerrarekin kontratu artistikoa sinatu zuela aurreko legegintzaldian, Udalaren buruan zeudenean, azaroaren 29an ekitaldia burutzeko. Baina aurreko maiatzean negua iritsi zen berriro Iruñeko Udalera eta, koalizio eskuindarrak kontratua baliorik gabe uztea lortu du behin boterean egonda, taktika zikina aurrera eramanez. Herriaren Defendatzaileak, pertsona neutroa izanda, Iruñeko Udalarari eskatu dio debekua bertan behera uzteko.

Traba guztien gainetik, Pirritx, Porrotx eta Marimototsek Iruñean ekitaldia burutuko dutela baieztatu dute, baina tristea da kolorez eta alaitasunez betetako horrelako ekitaldiak, batzuek behintzat izuaren eta erreprezioaren taktikarekin zapuztu nahi izatea. Zein da zure iritzia gaiaren inguruan Pello??



●● Pello Azpiroz

Ilepa Mikel!!! Pirritx, Porrotx eta Marimototsen Baluarteko ikuskizuna udalak bertan behera utzi izana adibide kezagarria da. Porrotxek esan duen bezala euskaldunak izokinak gara, beti korrontearen aurka igerian gabiltzalako (Nafarroan beste inon baino gehiago). Aspalditik euskarak bizi duen egoera hau zoritxarrez ohikoa da, euskara Nafarroatik desagertarazi nahi duten horien aurka etengabe borrokan gabiltza. Pailazo hauek egiten duten lana zoragarria eta gorai-patzeko modukoa da. Udalaren laguntzarekin edo gabe ikuskizuna egingo dute Iruñean.

Baina ez ezazue pentsa UPN-ek soilik erasotzen diela euskaldunon hizkuntza eskubideei. Enrique Mayaren azken agintaldi honen hasieran berehala onartu zuen PSN-rekin batera euskararen ordenantza berria, 1997 baino lehenagoko egoerara eramaten gaituena berriro.

Eta ezin dugu ahaztu aldaketaren gobernuan Izquierda-Ezkerrek trabak jarri zituela euskararen zonifikazioarekin bukatzeko. Euskararekin loturiko gaietan UPN eta PSN-rekin batera bozkatu zuen eta bozkatzen du. Nafarroako instituzio askok kolonizazio linguistikoa bermatzen eta legitimizatzen dute.

Zentsura kasu hau entzun bezain laster burura etorri zait naphartheid hitza. Naphartheid kolektiboak 1988an sortutako fanzinea bat zen Naphartheid. Fanzine honek Hegoafrikan beltzek bizi zuten zapalkuntza egoeraren eta euskarak Nafarroan bizi duen egoeraren artean lotura egiten zuen. Negu Gorriak taldeak bere lehen albumean atera zuen kanta bati izen hori jarri zion handik urte gutxira.

Nafarroan bizi garen euskaldunek etengabe aldarrikatzen dugu gure hizkuntzaren eskubideak bermatzea, Nafarroa iparraldeko eta hegoaldeko bi herritarrek hizkuntza eskubide berberak izatea. Ikuspuntu hau alderdi espainolistek euskararen inposaketa gisa saltzen dute euskararekiko daukaten jarrera penagarria justifikatzeko. Jarrai dezagun lanean, bide onetik goaz.

Lingua vasconum, lingua navarrorum, ze arraroa euskararik gabe Nafarroa!!!



HIRUZUBIDE IBILBIDEA INAUGURATU DUTE

Larraun ibaian, Mugiroko "Caballin" izenez ezaguna den zentralaren inguruan hasi eta Plazaola Bide berdetik zehar Latasarako bidea jarraituz, ibaiaren aldamenetik dagoen xenda egokitu dute. Iturras-karriko langileek egin zituzten lehen garbitze lanak eta ondoren Larraungo Udalaren eta Mugiroko Kontzejuaren babesarekin Ondare Kultur Taldeak egokitu zuen. Joan den azaroaren 24an herritarrekin eta parte hartu duten erakundeetako ordezkariekin batera inauguratu zen ibilbidea.

Azken asteetako euriteek zertxobait aldatu zuten eguneko plana. Hasierako zatian erreka aterata baitzegoen, eta Mugiroko herritik hasi zuten ibilbidea. 60 lagun elkartu ziren eta ibilbidea egiteaz gainera, bertan egon ziren eta dauden zubi eta erroten historia ezagutzeko aukera izan zuten. Eta amaitzeko Gautxori elkartearen arratsaldera arte luzatu zen Mugiroko Kontzejuak eskainitako luntxa.

Orain, edonork goza dezake Intzoa, Zubidenea eta Beltzuntze zubiak lotzen dituen ibilbideaz.



BIOGALAXY PROIEKTUA BIGARREN ALDIZ SARITU DUTE



Orain dela bi ale ezagutu genuen Biogalaxy proiektua iGEM lehiaketan aurkezten izan ziren joan den hilean Nafarroako zortzi gazte. Horien artean dago Saioa Ganuza lekunberriarra. Iaz espazioan bizitzeko gai diren landareetatik proteina modu errazean ateratzea posible zela erakusten zuen proiektuarekin sarituak izan ziren. Aurtengo taldeak ordea, egindako lanari jarraipena emanez, erronka gogorragoa jarri zion bere buruari eta Marteko baldintzetan helburu horiek betetzen zituen proiektuan lanean ibili dira. Berrito sariren bat jasotzea zail ikusten bazuten ere, landareetan aplikatutako biologia sintetikoko lehen saria jaso zuten. Azken hilabete hauetan eta Bostonen bitatuko esperientziarekin pozik dago Saioa: *"Lehenengo egunean tokatu zitzaigun gure proiektua aurkeztea eta entseatzeko beste zenbait taldek baino denbora gutxiago izan genuen arren, ondoren lasaitu eta esperientziatz gehiago gozatzeko aukera izan genuen"*. Oraindik erabakitzeke dago, datorren urtean talderik osatuko ote den. Zorionak!

EUSKARAREN EGUNAREN EKITALDIAK ABENDUAREN 13AN IZANEN DIRA LEKUNBERRIN

Abenduaren 3an Euskararen Eguna izanen da. Lekunberrin ordea, aurten abenduaren 13an izanen dira Euskararen Eguneko ekintzak. Eguerdiko 15:30etan Ibarberri Kantuz egingen da ikastetxe-ko patioan. Ondoren, hainbat ekintza izanen dira Lekunberriko plazan: eskulan tailerra, txokolatea, musika... Eta 19:00etan kontzertu berezia eskainiko dute Aralar Udal Musika Eskolako ikasleek eta Larraun Kantuz taldeko kideek Kantinan.

EKITALDIZ BETETA DATOR ARAITZ ETA BETELUKO KULTUR ASTEA

Azaroaren 30etik abenduaren 7ra bitarte ekitaldiz betetako kultur eskaintza izanen da Araitz eta Betelun. Urtero bezala, ibarreko herri handi nahiz txikienetan izanen diren adin hainbat ekitaldi antolatuta dituzte Araitz eta Beteluko Kultur Astearen baitan. Aurtengo Araitz eta Beteluko Eguna Betelun ospatuko da abenduaren 1ean. Txistulariak, zantantzarrak, artisau azoka eta bazkaria izanen dira besteak beste. Eta abenduaren 6an berriz, Azkaraten Mixel Ducau eta Caroline Philippen kontzertua izanen da. Baina horrez gain aste osoan zehar adin guztiei zuzendutako hitzorduak egonen dira: pailazoen ikuskizuna, film proiektzioa, hitzaldiak... Egitarau osoa ikusgai duzue kontrazalean!



AITOR OREJA, AITOR GOIKOETXEA, RUBIO ETA GORKA URBIZU ELKARTU DITU BERRI TXARRAK TALDEAREN AZKEN KONTZERTUAK

Azaroaren 22an eta 23an Iruñeko Nafarroa Arenan eskainitako azken bi kontzertuekin amaiera eman dio Berri Txarrak Taldeak bere musika ibilbideari. 11.000 lagun baino gehiago bildu ziren azken kontzertuan eta ostiralean ere goraino bete zen Nafarroa Arenako areto erraldoia. Ikusleen artean izan ziren eskualdeko jarraitzaile eta herritar ugari. Batzuk jarraitzaile final izan direlako 25 urte hauetan eta beste batzuek ez zutelako galdu nahi horren bertakoa dugun musika talde ezagunaren azken emanaldia. Gainera azken kontzertuan izan zirenek Berri Txarraren jatorrira denboran atzera egiteko aukera izan zuten. Azken egunetan kalean zebilen zurrumurrua: "Oreja eta Rubio entseatzen omen dabilta azken kontzertuan jotzeko!"; "Goikoetxea ere hemendik dabil!"... Bai, azken egunetako zurrumurruek egia ziren. Larunbatean eskainitako kontzertuan hasierako laukoteak hainbat abesti eskaini zituen eta beraientzako nahiz ikus-entzuleentzako denbora pasa bada ere, sentimendu ugari sortarazi zituen. Oraingoz behintzat "Ikusi arte" esan du taldeak eta 25 urte hauetan utzitako abestiez gozaten jarraitzea baino ez zaigu gelditzen eta, ez dira gutxi!

AURRERA TABERNAK IRABAZI DU LEKUNBERRIKO PINTXO ASTEAREN 1. LEHIAKETA

Kalabazin gozoarekin eta txahalarekin egindako pintxoak izan da Lekunberriko Udalak lehen aldiz antolatutako Pintxoaren Asteko lehenengo txapelketako goxoa eta beraz sariduna. Bigarren saria berriz, Amairu taberna-entzako izan zen, aurkeztutako brie gazta eta urdaiazpikoarekin betetako eta orlyz bildutako alkatxofa pintxoari esker. Azaroaren 17tik 24ra bitarte Lekunberriko tabernetan pintxo bereziak dastatzeko aukera izan zen. Guztira zortzi tabernekin parte hartu zuten eta ostalariek nahiz bezeroek gustura parte hartu dute lehen edizio honetan. Lekunberriko Udalak halako ekimenekin bertako gastronomia eta ostalaritza sustatu ahi du helburu.



Argazkian: Maria Jesus Ayestarán, Francisca Martel Domínguez eta Joseba Jokin Ordoki



Argazkian: Maria Jesus Ayestarán, Shuyeng Cardenas, Tere Aierdi eta Joseba Jokin Ordoki.

Hilekoaren eta antisorgailu hormonalen tabua

Pentsatu al duzue inoiz nola funtzionatzen duten pilula antisorgailuak, adibidez? Hamaika gaitzarako konponbidea dela sinestarazi nahi izan digute, baina badakizue zenbat informazio gelditzen den esan gabe? Mito eta informazio faltsu anitz dago honen inguruan eta gaur oso zabalduta dagoen bat apurtzera natorkizue.

Hasi aurretik argi utzi nahi dut jakintza eta ikerketa bat dagoela atzetik, hilekoaren prozesuaren, informazioaren... dibulgazioan nabil jo ta ke eta, gainera, Hezitzaile Menstruala ere banaiz.

Beno, aurrera.

Normalizat dugu gure hormonak itzaltzen dituen 50. hamarkadatik mantendu den antisorgailu bat hartzea. Eta okerrena? Informazio falta. Oraindik ere zenbatak pentsatzen duzue antisorgailu hormonalek hilekoa erregulatzen dutela?

Hementxe lehen mitoa. Ez, ez du hilekoa erregulatzen, hirutik batek horretarako hartzen duen arren. Pilula antisorgailuak 28 eguneko patro bat betetzen du, gorputzaren prozesu natural bat IMITATU nahian.

Lehenik eta behin, har ditzagun eredu gisa pilula antisorgailuak -antisorgailu hormonaletan famatuena-. 28 eguneko tabletatxoan zazpi eguneko "plazebo" pilulak izanen ditugu. Zer esan nahi du honek? Ba

sasi-hormonarik gabekoak direla. Sasi diot ze piluletako hor-

monak ez dira benetako hormonak, laborategi batean prestatu eta gure hormonak deuseztatzen/ordezkatzen dituzten hormonak dira.

Nola funtzionatzen dute? Hitz gutxitan eta sinpleki, sasi-hormona horiek uteroaren azala ahul mantentzen dute eta "plazebo" astean hauek hartzeari uzten diogunean azala erori egiten da. Besterik gabe.



Horregatik ematen du benetako menstruazioa dela: odola ikusten dugulako.

Gure hormonak deuseztatzen dituela esan dut arestian, hau da, obulazioa itzaltzen duela. Obulaziorik gertatzen ez bada, ez da hilekorik emanen. Hilekoa bere horretan obulazioarengatik geratzen den prozesua da. Zer da, orduan, antisorgailu hormonalek eragiten duten odol-jarioa? Gabeziazko odol-jarioa deitzen zaio. Grabatu letra larriz: EZ DA MENSTRUAZIOA. Antisorgailu hormonalek sorturiko odol-jarioa ez da

menstruazioa. Eta, beraz, ez duzu ez aurre-menstruaziorik, ez aurre-obulaziorik ezta obulaziorik ere.

Gure obulutegiek estradiol eta progesterona, besteak beste, deituriko hormonak askatzen dituzte zikloan zehar. Eta ez dute soilik hilekoaren prozesuan eragiten: beharrezkoak ditugu gure aldartearentzako, hezurren osasunerako, tiroidearentzako, giharrentzako eta metabolismoarentzako, besteak beste.

Antisorgailu hormonaletan topatu dezakegun sasi-hormonetako bat da progestina; eta nahiz eta izen beretsua eduki, ez da progesterona. Levonorgestrel da ohikoena eta pilula antisorgailuetan, inplanteetan, Mirena DIUan eta biharamunek pilulan erabiltzen da. Molekula ezberdinak dira eta, beraz, efektuak ere ezberdinak dira. Adibidez, progesterona ezinbestekoa da gure buruko osasunerako; progestina, aldiz, depresio eta antsietate kasuekin lotuta dago. Beste bat: progesterona garrantzitsua da gure ilearen osasunerako; progestina, aldiz, ilea galtzearekin dago lotuta.

Pentsatzen dut hamaika gai gelditu direla zalantzan eta beste hamaika galdera sortu zaizkizuela. Instagramen @marigorri._ kontuan aurkituko nauzue, zuen galderak erantzuteko eta laguntzeko prest. Bestela ere, zergatik ez? Mailopek eskaintzen didan orrialdetxo hau erabili dezakegu komunikatu eta tabuak apurtzeko!



luze

Bortizkeria matxista

Kaixo irakurle. Zoritxarrez aspalditik datorren eta zorionez, aurre egin nahian, azken aldian asko bistarazten ari den gai batekin natorkizue gaurkoan. Zorion osoa litzateke landu behar ez izatea, ea horretara iritsi gaitzkeen, oraindik oso urrutiti dagoen arren. Bortizkeria egoera asko ematen dira inguruan normalizatuak daudenak eta ez da batere osasungarria, oso bortitza gainera pertsona askorentzako. Hau jasaten duen gehiengoa emakumea, noski. Hau sortzen duten gehiengoa gizonetzkoa, noski. Gizon izateagatik hori "normala" dela uste dute gainera.

Nerabezaroan 50 mutil geunden erresidentzia batean ikasi nuen 4 urtez. Institutu giroek badirudi badutela berez bortizkeria giro bat, non gogorrek ahula zapaltzen duen. Erresidentzia hartakoa, batez ere lehen urteetan, txikien taldean nengoenean, gogorra izan zen. Normalizatua zegoen mutilen artean bestea gutxiestea, marjineztea, biolentzia fisikoa ere ez zen arrotza. Nolabait normala zen. Nire buruan pairatu nuen hori guztia. Gogorra izan zen. Ni neu ahula nintzenaren sentsazioa gelditzen zitzaidan gainera, normala zela gogorrek ahula zapaltzea. Nik uste gehienok ikusi dugula gure inguruan adin horretan horrelako egoera bat, noiz jaio garen kontuan hartu gabe. Eta normalean, gizonak bortitzak.

Zorionez, gerora, nik nire burua sentikortzat izanda, nire moduko jendearekin topatzeko ahalegina egin dut eta giro lasaiagoetan ibili naiz. Azken urteetan gainera, gizon baina emakume gehiago dauden es-



pazioetan gehienetan. Giro ezberdintasuna nabarmena da. Ondokoaren zaintza, errespetua, entzumena... Oraindik nabarmenagoa egiten zait ondorioz, aurreko giroetara bueltatzen naizenetan, taberna, parranda eta zenbait kirol gunetara bueltatzean. Zein agerikoa eta zein arrunta den oraindik biolentzia, bereziki gizonen aldetik.

Baina azken aldian ukitu nauena zera izan da, elkarte bateko kide naitela eta bertan emakumeen aurkako biolentziaren aurrean aritzeko protokolo bat izanda, kide bati prozesua martxan jarri zaionean, honek aurre egiteko erabili dituen estrategiak:

Bat, prozesua eraman duen taldea gutxiestea eta balioa kentzen saiatzea. Bi, bere burua biktimatzat aurkeztea. Hiru, legea erabiltzea mehatxu bezala prozesuaren eta elkar-tearen aurrean. Lau, elkar-tearen erabakiei ez kasurik egitea etab. Sorpresa bat izan da ikustea biolentzia mota asko daudela, nire buruan sentitzea, elkartekide bezala. Eta prozesuan zehar elkartekideen ahotatik atera diren ideiak ere oso kontuan hartzekoak dira: "Etxeko kontuak

izango ziren", "Zein tristea prozesu hau egin beharra"...

Ondorioz, oso sentikor nago biolentzia matxistarekiko eta bere biziraupen estrategiekiko. Bestek gutxiesten dituen, modu askotan min egiten duena bestearen gainetik egoteko eta nor berearekin atertzeko. Uste duguna baino gehiago erabiltzen dela gero eta argiago dago. Ageriko egoeratan erabiltzen bada (tabernak, lagun artean), jakin nahi nuke zer gertatzen den etxeetan, bikoteetan, zonalde zapalduetan... Mila lekutatik heldu zaizkigu gehiegikerien testigantzak, baina ez diegu arreta gehiegi jartzen... Urruti daude...

Ba gertu ere badugu zer egina. Ez diot indarra agertu behar ez denik lekuetan, parrandan, kirolean... Baina denok dakigu ezberdintzen indarra eta biolentziaren artean. Ni behintzat nazkatu naiz eta ez naiz isilik gertuko. Nik sinisten dizuet. Nik ikusten dut. Nik ere badut ardura. Ni ere bortitza izan naiteke, nire burua begiratzeko eta lantzeko konpromisoa hartzen dut. Ez dago beste biderik. Bortizkeria matxistarik ez!



Zabal

Oskar Estanga

Jayan Jai Trinketea: bere txikitasunean handi



Lekunberriko trinketearen mendeurrena ospatu zen joan den azaroaren 16an. Goizean goizetik hasita nahiz arratsaldean modalitate ezberdinetako hainbat pilota partida jokatu ziren, baina ekitaldi nagusia arratsaldeko 16:00etan izan zen. Lekunberriko Udalak sortzaileetako batzuen senideek eta hasierako urtetan bertan jokatu zuten hainbat pilotariri omenaldia egin zieten. Lekunberriko Alkatea den Gorka Azpirozzen eskutik oroigarri bana jaso zuten eta ondoren Tirikitrauki Dantza Taldeak emaldi labur bat eskaini zuen.

Jayan Jai Trinketea, orduan oraindik estali gabe zegoen frontoi zaharraren ezker aldean eraiki zen 1919an. Hamahiru bizilagunen adostasunari esker izan zen. Anastasio Mazok, Juan Juanmartiñenak, Pedro Saldisek, Agustín Madozek, Lorenzo

Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

Hernandorenak, Rafael Arguiñenak, Odón López, Patricio Lópezek eta Matias Astizek jarritako 35.000 pezetei esker gauzatu ziren eraikitze lanak. Garai hartan Larraungo Kontzejua zenarekin akordio batetara iritsi ziren ordea, 30 urteren bueltan herriak gastuaren erdia ordaindu beharko ziren. Mugiroko harrobitik ekarri zen 35 bider 10 metroko pilotaleku txikia eraikitzeko harria. Nafarroan eraiki ziren frontoi estalien artean lehenetarikoa izan zen Jayan Jai.

1919ko Pilarika Egunean ospatu zen inaugurazio ekitaldia. Mitxauseanean Kultur Etxeak egindako dokumentazio bilketa lanari esker hainbat datu interesgarri eman dira ezagutzera mendeurrenarekin batera. Esaterako bertako jokatu zen lehenengo partida hura Oiarbidek eta Valcarlosek, Fernandez eta Satrustegiren aurka jokaturakoa izan zela eta bertan izan zirenek sarreragatik pezeta bat ordaindu zutela.

Sarreren prezioak ordea gora egin zuen ondoren. Bertatik orduko pilotari punta-puntakoenak pasa baitziren eta Iruñeko pilotalekuetan adina balio izatera pasa omen ziren. Atano II.a pilotariak ere jokatu omen zuen Jayan Jaien. Baita eskualdeko hainbat pilotarik ere, Bonifacio Etxarrik, Emilio Prebostek, Mazo anaiek, Mariano Etxarrik, Corpus Hernandorenak, Juan M. Michausek, Okiñenak, Orejak, Candido Elizalde... eta gertuagoko garai batean baita Patxi eta Fermín Etxarrik, Pello Albenizek, Ladis Galarzak eta Mikel Soroak besteak beste.



Tirikitrauki Dantza Taldeko kideek aurraskua dantzatu zieten omenduei. Arg: Labrit

1976an trinketearen ondoan zegoen frontoi handia estali eta moldatu bazen ere, trinketeak bere txikitasunean beti izan du mugimendu handia. Hasierako urteetako pilota partida eta apustuez gainera, bertan hainbat eta hainbat ekitaldi egin izan dira, herri kirola, ekitaldi politikoak, parrandak, herri-bazkariak, musika taldeen entsegu-leku ere izan da... Eta espero dezagun, txoko horri herriarrentzako bilgune izaten jarraitzea aurrerantzean ere.

GAINTZA ETA ALDATZ

San Martin festa koloretsuak

Asteburu euritsua izan arren Gaintza eta Aldazko herritarrek ederki ospatu zituzten San Martin jaiak. Udazken bete-betean eta eskualdeko azkenak izanik dagoeneko ohituta daude eta eguraldi petrala ez zen oztopoa izan, bai Aldatzen eta baita Gaintzan ere egin ohi dituzten etxez etxeko errondekin festa giroari kolorea emateko. Azaroaren 8an ostiralarekin eman zieten hasiera jaiak. Aldatzen Patata Tortilla eta Mus Txapelketa izan zuten lehenengo egunean. Aurten losune lgoak prestatutako patata tortilla izan zen aurkeztutako zortzietan goxoa. Eta ondorengo egunetan magia ikuskizuna, Sagar-do Festak, Nerea Ibarzabal eta Julio Sotok eskainitako bertso saioa eta Pilota partidak izan zituzten besteak beste. Frontenis Txapelketan hamar bikotek parte hartu zuten eta Inaxio eta Bingen Begiristain izan ziren txapeldun. Herri bazkariaren ondotik, inoiz baino jende gehiago animatu zen dantzara. Gaintzan berriz, umeentzako jolasak, eta urteroko harri jasotze saioa egin zuten larunbatean. Eta San Martin Eguna elkartean egindako bazkari eder batekin amaitu zuten. Elizkizunetarako tartea ere izan zuten, noski. Horra hor aurtengo zenbait irudi!



ce consulting
empresarial

ANA RAMOS MARTÍN

- Enpresa eta autonomoen aholkularitza
- Lursailen administrazioa
- Aholkularitza fiskal eta laborala

666 939 332
aramos@ceconsulting.es
www.ceconsulting.es

Etxaburua, 3. Betelu
La Muga enpresa gunea, 11. Orkoien

Antsonea
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA
- HARATEGIA -

PATXI GALARZA

Astelehenetik larunbatara
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00

Irurtzun

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZA

634 551 743
infoaralar@gmail.com

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34



Hostal Betelu

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta pizza
goxoak

Etorri eta
on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

amairu bar

ETXKO PIZZAK,
KOPA, BERGIZIAK

948504352

LAGUNDU MAILA
LAGUN

Mailopeko bazkidea
izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

LARRAUN GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZTATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN s.l.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com

Argirik gabeko bideak, etorkizunik ez du!

Lekunberriko festak igaro eta Printzan ez gara geldirik gelditu. Pasta egiten ikasi dugu, elektrizitatearen oinarriak lantzen hasi gara, formakuntza saioekin jarraitu dugu, etxebizitzari buruzko hausnarketekin, udalarekin hizketan, presoan eta errepresioaren auziari heldu diogu, Napardeath filma ikusteko aukera izan genuen zuzendari eta sortzaileekin batera, Matadero lokalean proiektuaren azalpena, musika gela atontzen hasi gara...

MENDIALDEKO GAZTE TOPAKETA

Proiektua gero eta indar handiagoa hartuz doa eta abenduan ilusioz beteriko hitzordua datorkigu: 2019ko Mendialdeko Gazte Topaketa. Inguruko gazte, gazte asanblada eta gaztetxeekin batera antolaturiko ekimenak Bortziri, Baztan, Malerreka, Leitzaldea, Ultzamaldea, Basaburua, Imotz, Araitz-Betelu, Irurtzun-Arakil, Larraun eta inguruko gazteei dei egiten die abenduak 6 eta 7an Larraungo Printza Gune Autogestionatuan egingo diren topaketetan parte hartzera. Elkar ezagutzea, aurrerantzean baliagarri izango zaizkigun tresnak barnertzea, elkartzunezko harremanak eraikitzea eta ikaspenak elkarbanatzea izango dugu helburu.

Abenduaren 6an, 16:00etan emango diogu hasiera harrerarekin, 17:00etan ezagutza jolasekin jarraituz. 18:00etan, inguruko gazte asanbladen egoera elkarbanatuko dugu mahai inguru baten bidez. Egun hontako afaria bakoitzak zerbait eraman eta elkarbanatuz egingo dugu, lotara joan aurretik Leire eta Alaitz Olano ahizpek eskeiniko duguten kontzertu akustikoaz gozatuz. Abenduak 7an berriz, goizean gosalduta eta 10:30etan jadanik eskualdeko gune ezberdinetan (Printza, Matadero lokala, Satorzulo) eskuragai dagoen eztabaida testua azaldu eta horri buruz hausnartuko dugu talde txikitan. Bazkari eder baten ostean, auzolana burutuko dugu topaketari bukaera emanez.



Anima zaitetz egonaldi guztian zein interesgarri suertatzen zaizun horretan parte hartzera.

ABENDUKO AGENDA

-Abenduak 4-12: "Baratza kritikoa" erakusketa, Mugarik Gabe erakundearen eskutik.

-Abenduak 6-7: Mendialdeko Gazte Topaketa.

-Abenduak 11, 18:30etatik 20:30tara: Mugarik Gabe erakundeak antolatuta "Desigualdad y mujeres rurales" tailer mistoa, Uruguako Red de Mujeres Ruraleseko Alicia Migliaro ekofeministaren eskutik.

-Abenduak 14, 10:00etan: Etxebizitza problematika. Emantzipazio zailtasunak eta irtenbide kolektiboak.

-Abenduak 20:

· 17:00etatik 20:00etara: Arropa eta jostailuak ekarri eta elkarbanatzeko

tartea, musu-truk gela abian jartzearekin batera.

· 21:00tan: Afari soziala. Hilabetero hirugarren ostiralean giro oneko afaria. -Abenduak 23:

· 17:00etan: Marikalanbre gisa ezaguna den Ana Galarragaren eskutik, ipuinak eta esperimenduak uztartzen dituen "Bizitzaren laborategian" ikuskizuna. Ondoren txokolatada.

· 19:00etan: "Muga deitzen da pausoa" filmaren proiektzioa (gaztelarazko azpigituluekin) eta hizketaldirako tartea Maider Oleaga zuzendaria eta Miren Tirapu antzezlearekin. Frankismo garaian klandestinitatean hurrei euskara irakasten zien lehen andereño Elbira Zipitriari buruzko begirada berezia adierazten digu filmak.

Harremanetarako:

larraungoprintza@gmail.com





Hamabost urte betetzen ditu aurten Araitz-Beteluko Krosak

Ilbeltzaren 12an izanen da aurten Araitz-Beteluko Krosa. XV. Lasterketa izanen da aurtengoa. Antolatzaileak dagoeneko buru-belarri dabiltza kirol proba prestatzen. Aurten ere ez da aldaketarik aurreikusten. Egur-diko hamabietan hasiko da lasterketa Beteluko plazan. 7,7 kilometroko ibilbidea eginen dute korrikalariak. Aurretik ohi bezala haurren lasterketa izanen da. Izen-ematea aurki zabalik izanen da www.kirolprobak.com atarian.

Eguraldi kaxkarrari aurre egiten

Negua batzuetan ez da atsegina izaten kirola egiteko. Joan den azaroaren 24an Lekunberri Bike antolatutako BTT irteeran bost lagun baino ez ziren ausartu eguraldi petralari aurre egitera. Gainera mendia bereziki lokaztua zegoen. Hala ere Larraunen barna egindako 27 kilometroko ibilbideaz gozatzeko aukera izan zuten. Datorren irteerako data dagoeneko kaleratu dute. Abenduaren 15an izanen da hurrengo hitzordua. Animatu zaitez!

Urtea Artzibarren amaituko dute Ttuturreko mendizaleek

Artzibarren izan dira oraingoan Ttuturre Kirol Elkarteke mendizaleak. Joan den azaroaren 24an Arrietako herritik irten eta Corona eta Lerdengibel tontorrek igo zituzten. Ibilbide zirkular bat eginez Artzibarreko tontoretatik bailara magiko horrek dituen baso eta zelaien panoramikaz gozatu zuten. Ibilbide laburra egin zutenek berriz Irurrekaeta ur jauzia ezagutzera joan ziren. Ondoren, Denak Aurizberriko kanpinean elkartu ziren bazkaltzera.

Bertan dugu urte berria. Horrekin batera zure aisialdiaz gozatzeko esperientzia berriak probatzeko gogoz bazabiltza, animatu eta parte hartu Ttuturrek hilabetean behin antolatzen dituen irteeretara. Hurrengo irteera abenduaren 15ean izanen da Kodes Mendilerroko Joar tontorretara. Hala ere gogoratu, beti bigarren ibilbide errazago bat proposatzen dela.

Informazio gehiago:
ttuturrekirolelkartea@gmail.com

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 696 658 288
LEKUNBERRI

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza

IORTIA EL INCA ESTETIKO HORTZ-ESTETIKA
Juanjo Gaitte García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

Bozkatu eta bozkatu

Hauteskunde urtea izan da 2019a. Joan den apirilaren 28an espainiar Kongresurako eta Senaturako hauteskundeak izan genituen eta maiatzaren 26an Udalerrietako, Europako eta Nafarroako Parlamentuko ordezkariak hautatzeko hauteskun-

deak ospatu ziren. Espainiar estatuko politika krisiaren ondorioz, Espainiako Gorteetarako bigarren hauteskunde batzuk deitu zituzten joan den azaroaren 10erako. Espainiako Alderdi Sozialistak lortu zituen boza gehien eta gerora jakin genuen Unidas

Podemosekin akordio batetara iritsi zela. Bertako emaitzei dagokionez, bozen norabidea ez zen gehiegi aldatu. Hona hemen Kongresurako nahiz Senaturako bozen alderaketa:

ARAITZ

KONGRESUA	A-10	A28
EH Bildu	147	154
GBAI	27	63
PODEMOS-IU-BATZARRE	27	24
NA+	11	1
PSOE	9	16
PACMA	-	1
RECORTES CERO -GV	-	1
VOX	-	1

SENATURAKO EMAITZEN PARTE-HARTZEA

	A-10	A-28
BOZAK	224	272
ABSTENTZIOAK	211	161
BALIOGABEAK	3	3
ZURIAN	2	8

BETELU

KONGRESUA	A-10	A28
EH Bildu	80	68
GBAI	45	64
PSOE	29	18
PODEMOS-IU-BATZARRE	21	30
NA	14	13
PUM+	1	1
PACMA	1	-

SENATURAKO EMAITZEN PARTE-HARTZEA

	A-10	A-28
BOZAK	192	193
ABSTENTZIOAK	75	70
BALIOGABEAK	3	5
ZURIAN	3	19

BASERRI HANDIA SALGAI



Ikusi Idealistan:

607 524 980

- Etxarri Larraun.
- Porlanezko bi solairu eta ganbara.
- Toki zoragarrian eta etxaurre egokiarekin.

ETXEA SALGAI



- Etxarri Larraun.
- 2 Etxebizitza bakoitza bere sarrerarekin.
- 2 Familiarentzat egokia.
- Lursaila etxebueltan.

607 524 980

Ikusi Idealistan:

LARRAUN

KONGRESUA	A-10	A28
EH Bildu	248	243
PSOE	54	52
NA+	52	65
PODEMOS-IU-BATZARRE	45	63
GBAI	33	73
VOX	2	6
PACMA	1	-
RECORTES CERO-GV	1	-

SENATURAKO EMAITZEN PARTE-HARTZEA

	A-10	A-28
BOZAK	435	489
ABSTENTZIOAK	325	274
BALIOGABEAK	8	10
ZURIAN	3	4

LEKUNBERRI

KONGRESUA	A-10	A28
EH Bildu	249	185
PODEMOS-IU-BATZARRE	148	196
PSOE	132	122
GBAI	113	174
NA+	8	101
VOX	15	12
RECORTES CERO-GV	6	2
PACMA	5	6
PUM+J	2	3

SENATURAKO EMAITZEN PARTE-HARTZEA

	A-10	A-28
BOZAK	760	797
ABSTENTZIOAK	316	267
BALIOGABEAK	8	14
ZURIAN	16	32

Maiatzaren 26ko hauteskundee-tan ordezkariarik gabe gelditu ziren Kontzejurak asko izan ziren gurean. Gero eta gutxiago dira Kontzejurako taldea osatzea lortzen duten herriak. Araitzen Uztegi bakarririk osatu zuen taldea eta azaroaren 17an egin ziren hauteskunde partzialetan Gaintzak Kontzejurako taldea atera zuen (Juan

Jose Otamendi, Jose Manuel Etxarri, Manuel Saralegi, Jose Maria Intxaurrondo eta Maria Martina Askarai). Larraunen berriz, joan den hilean ospatu zen bigarren txanda horretan beste bost Kontzeju osatu dira: Arruitz (Jose Maria Astiz, Alfonso Etxarri eta Sugoi Etxarri), Astitz (Izaro Garmendia), Azpirotz-Lezaeta (Eneko Etxetxi-

kia, Maria Soledad Astiz, Juan Jose Lasarte, Juan Jesus Gorostidi eta Miguel Angel Zabalo), Barailbar (Maite Huarte, Jesus Maria Oreja, Iciar Emazabel, Jose Maria Oyarzabal eta Iñaki Oiartzun) eta Gorriti (Imanol Perez, Maria Esther Ostiz, Fermin Bengoetxea eta Joseba Goikoe-txea). Larraunen Uitziz izan da Kontzejurik osatu gabe gelditu den bakarra.



ekin
rotulacion
948 85 32 79



SAN MIGUEL
gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu



CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com



OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884



tanatorios
IRACHE
Betidanik
ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

50 eta 69 urte artean zaude eta oraindik ez duzu testa egin?

1948tik 1969ra bitarte jaiotako emakumezko eta gizonezkoen zuzendutako Koloneko Minbiziaren Prebentzio Programa martxan jarri du hirugarrenez Irurtzango Oinarrizko Osasun Zerbitzuak. Pixkanaka-pixkanaka geroz eta herritar gehiagok egingen dute proba, Koloneko minbizi kasuak goiz harrapatzeak duen ga-

rrantziak kontziente izanik. Izan ere, Nafarroan diagnostikatzen diren tumoreen artea ohikoena da.

Heriotza tasa murrizteko ezinbestekoa da garaiz diagnostikatzea. Araitzen 101 gizonezko eta 73 emakumezko daude deituta proba egitera. Bete-lun 91 herritar, 46 gizonezko eta 45 emakumezko. Larraunen 164 gizo-

nezko eta 91 emakumezko eta Lekunberrin 162 eta 152.

Aurreko aldietan jasotako emaitzetan eta estatistiketan oinarrituta. Lekunberriko Osasun etxean 320 herritarrek proba egingen dutela aurreikusten dute eta horietatik 13k positibo emanen dute TSHO test horretan. Horrek ez du esan nahi hama-

ONGI PENTSATU DUZU?



Zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta arrisku handiagoa.



Memoria eta arreta gutxitzen dizkizu, eta eskolan eta lanean zailtasunak sortzen.



Pertzeptzioa eta erreflexuak gutxitzen ditu eta istripu arriskua areagotzen.



Antsietatea eta ikara eragin ditzake, eta pertsona batzuetan gaixotasun mentalak.



Bere onuren inguruko sinesmenek, tolerantzia soziala areagotu eta arriskuaren pertzeptzioa gutxitzen dute.



hiru pertsona horiek minbizia izanen dutenik. TSHO testak gorozkietan begi bista batean ikusezinak diren odol arrastoak detektatzen ditu, hori baita minbizia mota horren sintoma nagusienetako bat. Baina asko dira gorozkietan odola izatea eragiten duten bestelako kausak ere, batzuek inolako garrantzirik ez dutenak, gai-

nera. Baina TSHO testan positibo emanez gero, minbizia kasu bat dela baztertzeko pertsona horiek kolonoskopia proba egin beharko dute. Beraz, 50 eta 69 urte artean badituzu eta ez baduzu zure etxean gonbidapena eta testa jaso hurbil zaitez osasun etxera.
- Lekunberriko Osasun Zentroan: Asteleheneretik asteazkenera (08:15-14:30).

- Arribeko Osasun Zentroan: Asteleheneretan (08:15-10:30).
- Irurtzungo Osasun Zentroan: Astearte, asteazken eta ostiraletan (08:15-14:30).

Informazio gehiago:
848 423 498
www.cancercolon.navarra.es

KALAMUAK ZURE GARUNARI ERAGITEN DIO

Oroimena eta kontzentrazioa gutxitzen dizkizu.
Istripuak eta eritasun mentalak eragiten ahal dizkizu.
Zenbat eta gazteagoa zaren, arrisku handiagoa izanen duzu.



KALAMUAONGIPENTSATUDUZU.NAFARROA.EUS

Nafarroako
Gobernua  Gobierno
de Navarra

Josu Iribarren Saigos
 Abenduaren 13an, 12 urte.
Etxeko Txapeldun, jator eta seme-anai txintxoarentzat, gure zorion, muxu ta besarkada goxoenak. Aupa Josu eta urte askoz!!



Alain Castrillo Cruz
 Abenduaren 1ean, 14 urte.
Zorionak Alain! Aupa!!!! Besarkada bat Atallutik.



Aner Arraztio Estanga
 Abenduaren 7an, 11 urte.
Zorionak Aner! Ongi pasa zure egunean. Muxu haundi bat etxekoan partez.

June Tolosa Iraola
 Abenduaren 14an, 10 urte.
Zorionak politte. Oso ondo pasa zure urtebetetze egunean. Muxu haundi-haundi bat, aitatxo, amatxo eta Urkoren partez.



Enaitz Iriarte Olano
 Abenduaren 19an, 5 urte.
ZORIONAK pottoki!!
Ongi ospatu zure eguna. Muxu potolo bat Elaia, atxitxo eta amatxoren partez.

Manex Mitxelorena Eskamendi
 Abenduaren 13an etxeko txikiak 3 urte beteko ditu.
Ongi pasa zure egunean ta muxu potolo bat Jokin, aitatxo ta amatxoren partez.



Mikel eta Igor Astiz Buldain
 Abenduaren 16an Mikelek, 8 urte.
 Abenduaren 31n Igorrek, 3 urte.
Zorionak maitiak! Oso ongi pasa zuen urtebetetze egunean! Mila musu etxekoan partez.

Mailope aldiak zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
 Idatz iezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

Lagunasesoria S.L.
**Fiskala
 Laborala
 Kontabilitatea
 Seguruak...**

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

SOTIL GARAJEA
BETELU
 948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

OKM
ABOKATUAK
 Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua
 Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

ABENDUA

03 | EUSKARAREN EGUNA

13 | LEKUNBERRI:

Ibarberri Kantuz, 15:30etan, ikastetxeko patioan.

13 | LEKUNBERRI:

Euskararen soka, 16:30etan, Lekunberriko plazan.

13 | LEKUNBERRI:

Musika emanaldia, 19:00etan, Kantinan.

15 | LEKUNBERRI:

Lekunberri Bike: BTT irteera.

22 | LEKUNBERRI:

Jesus Jaimerena Abesbatzaren Eguberrietako kontzertua, 11:45etan Lekunberriko elizan.

ARAZK GABEKO BIDEAK ETORREZUNIKERAZ DU

MENDIALDERO GARTE TOPAKETAK

LARRALINGO PRINTZA GUNE AUTOGESTIONATUAN

ABENDUAK 6 OSTIALA	LARUNBATA ABENDUAK 7
16:00 HARPERA	9:00 GOSARIA
17:00 EZABUTZA JOLASAK	10:00 EGUNA ANTOLATZEKO ASANBLADA
18:00 INGURUKO GARTE ASANBLADEN ESPERA AZTERGAI MAHAI INGURUA	10:30 TESTUEN EZTABARDA
21:00 AFARI AUTOGESTIONATUA* *berberri berrak erosten, elkarbanatzen	14:00 BAZKARIA
Ondoren...	Ondoren...
22:00 KONZERTU AKUSTIKOR ALATZ ETA LEIRE OLAND	ALUZOLANA

*LARRAKO TOKIA EGONGO DA

LAN-ESKAINNTZA

Aizarozko ostatua kudeatzeko eskaera epea zabaldu du Basaburuko Udalak. Interesa izanez gero jarri harremanetan: 948 503 035.

SALGAI

Ura berotzeko gasoliozko galdara salgai, 800 litroko deposituarekin. BAXIRO-CA-MOD-GAVINA 20 GTI SP. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 646870837 (Bixente).

Pisua salgai Sarrigurenen. 90m²-ko etxebizitza, bi garaje eta trastelekua. Harremanetarako: 676 090 928.



EROSTEKO

Land Rover Defenderra erosiko nuke, berdin dio ze egoeratan dagoen: ITV gabe, matxuratua, kolpearekin... Jarri harremanetan: 623 179 537.

TAXILON

Lontxo Otamendi Artola

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Aritz

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

ARAITZ BETELUKO KULTUR ASTEA 2019

AZAROAK 30

17:00 Uztegi
Potxin eta Patxin Pailazoak

19:00 Lezaeta
Zinema: "Napardeath"

ABENDUAK 1

Betelu
Araitz eta Beteluko Eguna
Goizean dianak.
Txistulariak, zantantzarrak,
azoka, omenaldia eta ba-
zkaria. Ondoren, Andoni
Ollokiegiren saioa.

ABENDUAK 2

19:00 Errazkin
Hitzaldia: "Goierri eta Beterri"
Jose Ramon Zubimendiren
eskutik.

ABENDUAK 3

12:00 Beteluko frontoia
Haurrentzako herri kirolak.

19:00 Arribeko Elkartea
Mahaingurua: Euskal Esko-
laren hastapenak bailaran.



ABENDUAK 4

19:00 Gaintza
Hitzaldia: "Kondenatuak"
Etxerat Elkartearen eskutik.

AZAROAK 29 – ABENDUAK 6

Beteluko udaletxea
"Euskararen Arnasguneak"
erakusketa.

ABENDUAK 5

19:00 Intzako Elkartea
Hitzaldia: "Zaborrak jan
arte"
Ainhoa Ansaren eskutik.

ABENDUAK 6

22:00 Azkarate
Kontzertua: "Mixel Ducau
eta Caroline Philips"

ABENDUAK 7

17:00 Atalluko Elkartea
Mus Txapelketa
21:00 Bertso afaria Aratz
Igarzabal eta Iban Urdanga-
rinekin.